



Barneko informazio- sistemari eta informatzailearen babesari buruzko politika

2024ko martxoa



Dokumentu hau irisgarritasun-irizpideen arabera diseinatu da, eta bereziki dago baliabide digitalen bidez bistaratzeko pentsatuta.



Mutualia, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen 2 zenbakiko mutua

Henao kalea 26,
48009 Bilbo
Telefono-zenbakia: 94 4252500
www.mutualia.eus

Informazio gehiagorako, *posta elektronikoko* bidez jar zaitezke gurekin harremanetan:
dircom@mutualia.es

Aurkibidea:

1.	Helburua.		4
2.	Betetzen den araudia		4
3.	Politika honen printzipio orokorrak		6
4.	Aplikazio-eremua.		6
4.1.	Irismen materiala	6	
4.2.	Irismen pertsonala	8	
5.	Garapena.		9
5.1.	Barneko informazio-sistema	9	
5.2.	Barneko informazio-kanala	10	
5.3.	Barneko informazio-sistemaren arduraduna	10	
5.4.	Informazioak kudeatzeko oinarrizko prozedura	11	
5.5.	Beste pertsona edo sail batzuek komunikazioa barneko informazio-sistemaren arduradunari helaraztea.	17	
5.6.	Datu pertsonalen tratamenduaren araubide juridikoa	17	
5.7.	Informazioen erregistroa	18	
5.8.	Errepresalien debekua	18	
5.9.	Informatzailea babesteko eta hari laguntzeko neurriak	19	
5.10.	Informatzailearen Babeserako Agintaritza Independentearen (AAI) kanpoko kanala edo autonomia- erkidegoetako agintaritza eta organo eskudunak	19	
5.11.	Barneko informazio-kanalari buruzko informazioa eta prestakuntza	20	
6.	Zabaltzea eta zalantzak argitzea.		20
7.	Mutualiako beste politika batzuekiko koordinazioa.		20
8.	Kontrola		20
9.	Onespen- eta berrikuste-taula		21

1. Helburua.

MUTUALIA Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduen 2 zenbakiko mutuako Zuzendaritza Batzordeak (aurrerantzean, Mutualia, erakunde hau edo mutua/mutua hau), mutuaren zuzeneko gobernua dagokion kide anitzeko organo gisa, mutuaren funtzionamendu onena lortzeko beharrezko xedapenak egiteko eskumena du (Estatutu etako 23.i) artikulua), besteak beste: Gobernu Korporatiboko Sistema modu iraunkorrean onestea, ebaluatzea eta berrikustea eta, zehazki, Mutuako gobernu-organo kolegiatu horrek onetsitako plan estrategikoen garapenean eta gauzatzean bete beharreko politika korporatiboak onestea, Mutualiaren jardura guztiak erakundearen helburuan, xedean, balioetan eta Kode Etikoan hartutako konpromisoekin lerrokatzeko eta une bakoitzean indarrean den legedia betetzeko helburuarekin.

Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen (2023/02/21eko BOE)—aurrerantzean, 2/2023 Legea— 5.2 h) artikuluen arabera, Mutualiak, behartuta dagoen erakunde gisa, barneko informazio-sistemen printzipio orokorrak eta informatzailearen babesaz azaltzen dituen politika edo estrategia bat eduki beharko du, eta erakundearen haren berri eman beharko da modu egokian.

Lege horren 5.1 artikuluan ezartzen denez, behartuta dagoen erakunde bakoitzeko administrazio- edo gobernu-organoa izango da barneko informazio-sistema ezartzearen ardura (langileen legezko ordezkariak kontsultatu ondoren), eta datu pertsonalen tratamenduaren ardura ere izango du, datu pertsonalen babesari buruzko araudian ezarritakoa betez.

Beraz, Mutualiako Zuzendaritza Batzordeari dagokio BARNEKO INFORMAZIO-SISTEMARI ETA MUTUALIAKO INFORMATZAILEEN BABESARI BURUZKO POLITIKA (aurrerantzean, politika hau) onestea.

Aipatutako 2/2023 Legearen xedea betez, politika honen helburua da barneko informazio- eta babes-sistemaren oinarritzko illoak arautzea, arau-hauste izan daitezkeen egite edo ez-egiteren baten berri ematen duten pertsona fisikoak (aurrerantzean, informatzaileak) lege horretan aurreikusten diren prozeduren bidez behar bezala babesteko jasan ditzaketen errepresalietatik.

Politika honen helburua da, halaber, informazioaren kultura eta erakundearen integritatearen azpiegiturak indartzea eta informazioaren eta komunikazioaren kultura bultzatzea, interes publikoko mehatxuak prebenitzeko eta detektatzeko mekanismo gisa.

2. Betetzen den araudia

Politika honek ziurtatzen du Mutualiak betetzen duela otsailaren 20ko 2/2023 Legea, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesaz arautzen duena (2323-02-21eko BOE).

Halaber, dokumentu honek betetzen du **Gobernu Korporatiboaren Politika Orokorra** ere, zeinean ezartzen baita Mutualiak konpromisoa hartzen duela bere xedea betetzeko, bere balioak, Kode Etikoa eta Gobernu Korporatiboko Sistema osatzen duten gainerako elementuak errespetatuz une oro, gizartearen onurarako.

Bestalde, Mutualiaren **Kode Etikoa** jasotzen dira enpresak barne- eta kanpo-bezeroekiko, administrazio publikoekiko, erakundeko gobernu-organoekiko eta oro har gizartearekiko harreman guztietan bete beharreko kudeaketako jarraibide egokiak. Honen alde ere egiten du (gardentasunaren balioari dagokionez): "Gatazka, kexa, iradokizun, kontsulta edo balizko ez-zilegi penalak gertatzen direnean, eta kode etiko hau edo Mutualiaren jokabide profesional eta etikoari buruzko arau orokorrak betetzen ez direnean, haien aurreko erantzuna eta/edo konponbidea errazteko eta kudeatzeko komunikazio-prozedura eta -bide errazak ezartzea; jarduteko autonomia duten pertsona edo barne-organo espezializatuei esleituko zaie prozedura eta bide horien kudeaketa; eta hori guztia kalte egin gabe Zuzendaritzak edo eskumena duen gobernu-organoak edo partaidetzaorganoak azken erabakia hartzeko duen gaitasunari".

Halaber, **profesionaltasuna** balioari dagokionez, Mutualiak Kode Etikoa konpromiso hau hartzen du: "erakunde-kultura sustatzea, non berezko ezaugarritzat hartuko baita, eta ez kanpoko betebehartzat, indarrean dagoen legeria betetzea, bai arauaren espirituari dagokionez, bai arau-zehaztapenari dagokionez".

Azkenik, **gardentasuna** balioari dagokionez, Mutualiak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Konpromiso etikoa: zintzotasunez jokatzeko gaitasuna, erakundearen balioak, jardunbide profesional egokiak eta Kode Etikoa errespetatuz une oro.
- Sinesgarritasuna eta integritatea: esaten edo adierazten denarekin bat eginez eta koherentziaz jarduteko gaitasuna, interakzioan aritzen diren pertsonengan konfiantza eta segurtasuna sortuz. Asmoak, ideiak eta sentimenduak argi eta garbi komunikatzea ere barne hartzen du.
- Kideei dagozkien politikak eta jokabide-gidak prestatzea eta eguneratzea, eta behar bezala jakinaraztea non kontsulta daitezkeen.
- Kide guztiek eta zuzendaritza-taldeak bereziki, beren jardueretan jokabide etikoa izan dezaten zaintzea eta sustatzea, erakundearen balioetan oinarrituta eta norberaren interesak edo interes pertsonalak edo faboritismoak alde batera utzita.
- Eraitza jakin batzuk lortzeko erabakitako jokabide-arauak zintzotasun profesionalean oinarritutako jarrerarekin bat datozela zaintzea.
- Gatazka, kexa, iradokizun, kontsulta edo balizko ez-zilegi penalak gertatzen direnean, eta kode etiko hau edo Mutualiaren jokabide profesional eta etikoari buruzko arau orokorrak betetzen ez direnean, haien aurreko erantzuna eta/edo konponbidea errazteko eta kudeatzeko komunikazio-prozedura eta -bide errazak ezartzea; jarduteko autonomia duten pertsona edo barne-organo espezializatuei esleituko zaie prozedura eta bide horien kudeaketa; eta hori guztia kalte egin gabe Zuzendaritzak edo eskumena duen gobernu-organoak edo partaidetzaorganoak azken erabakia hartzeko duen gaitasunari.

- Agintariekiko, erakunde arautzaileekiko eta administrazioarekiko harremanak legezkotasun-, lankidetzaz- eta gardentasun-printzipioen arabera planteatzea, horri buruzko barne-prozeduretan xedatutakoa kontuan hartuta..

3. Politika honen printzipio orokorrak

Hauek dira politika honen printzipio orokorrak, Mutuallian 2/2023 Legea betetzen eta ezartzen dela:

- 3,1. Politika honetan jasotzen direnetako egite edo ez-egiteren baten berri ematen duten pertsona fisikoak politika honetan aurreikusten diren prozeduren bidez behar bezala babestea jasanditzaketen errepresalietatik.
- 3,2. Informazioaren kultura eta erakundearen integritatearen azpiegiturak indartzea eta informazioaren eta komunikazioaren kultura bultzatzea, legezkotasuna, integritatea eta etika arriskuan jar dezaketen jokaera eta ekintzak eta interes publikoko mehatxuak prebenitzeko eta detektatzeko mekanismo gisa.

4. Aplikazio-eremua

Politika honen aplikazio-eremua Mutuallia erakunde osoa, haren jardura eta egitura fisikoa da: Gobernu- eta partaidetza-organoak, eginkizun betearazleak dituzten zuzendaritza-kideak eta gainerako pertsonak.

4.1.- Irismen materiala

Alderdi hauetan aplikatu beharko da politika hau:

4.1.1. 2/2023 Legearen 2. artikuluan jasotzen direnetako egite edo ez-egiteren baten inguruan jasotzen diren informazioak, lege horretan aurreikusten diren prozedura eta suposizioen bidez; hots:

1.A. **EUROPAR BATASUNEKO ZUZENBIDEAN ARAU-HAUSTEA izan daitekeen edozein egite eta ez-egite** (barneko ordenamendu juridikoan duen kalifikazioa kontuan hartu gabe), betiere:

- 2019/1937 Direktibaren Eranskinean (I. parte) zerrendatzen diren EBko ekintzen aplikazio-eremuan sartzen bada:
 1. Kontratazio publikoa
 2. Zerbitzu, produktu eta merkatu finantzarioak eta kapital-zuritzearen eta terrorismoaren finantziazioaren prebentzioa
 3. Produktuen segurtasuna eta adostasuna

4. Garraioaren segurtasuna
 5. Ingurumenaren babesa
 6. Erradioetatik babestea eta segurtasun nuklearra
 7. Elikagaien eta pentsuen segurtasuna eta animalien osasuna eta ongizatea
 8. Osasun publikoa
 9. Kontsumitzaileen babesa
 10. Pribatutasunaren eta datu pertsonalen babesa eta sareen eta informazio-sistemen segurtasuna
- EBren interes finantzarioei eragiten badiete (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren –EBFT– 325. artikulua)
 - EBFTren 26.2 artikularen arabera barneko merkatuari eragiten badiote (barne direla lehiari buruzko arauen eta estatuek emandako laguntzen, sozietateen gaineko zergari buruzko arauen edo onura fiskal bat lortzeko helburuarekin egiten diren jardueren alorreko arau-haustek).

1.B. **ARAU-HAUSTE PENAL EDO ADMINISTRATIBO LARRIA EDO OSO LARRIA eragin dezaketen egite edo ez-egiteak** (Kasu guztietan, barne hartzen dira Ogasun Publikoari eta Gizarte Segurantzari galera ekonomikoa eragiten diotenak).

4.1.2. Erakundearen BARNE-arau hauek ez betetzea ekar lezaketen egite edo ez-egiteei buruzko informazioa jasotzeko bide gisa (salbu eta pertsonen arteko gatazkei buruzko erreklamazioei lotutako informazioak edo informatzaileari eta komunikazioaren edo jakinarazpenaren xede diren pertsonen bakarrik eragiten dietenak; horiek beste bide/kanal espezifiko bat izango dute ezarria, barne-mailan, komunikaziorako eta/edo kudeaketarako):

- KODE ETIKOA
- JOKABIDE-ARAU OROKOR PROFESIONALAK
- INTERES-GATAZKETARAKO PREBENTZIOKO, DETEKZIOKO ETA KUDEAKETAKO PROTOKOLO OROKORRA.

Ohar gehigarriak eta eremu materialetik salbuestekoak:

- a. 2/2023 Legean aurreikusten den babesak ez du salbuetsiko prozesu penalari dagozkion arauak aplikatzetik, ikerketarako eginbideak barne
- b. 2/2023 Legean laneko osasunari eta segurtasunari dagokionez gertatzen diren Lan Zuzenbideko arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten langileentzat aurreikusten den babesa dela eta dagokion araudi espezifikoan ezartzen dena ere bete beharko da.
- c. 2/2023 Legean aurreikusten den babesa ez zaie aplikatuko informazio sailkatuari eragiten dioten informazioei. Ez die eragingo, halaber, medikuntzaren eta abokatutzaren alorreko profesionalen sekretu profesionala babestetik eta estatuko segurtasun-indar eta kidegoen konfidentzialtasun-betebeharretik eta erabaki judizialen sekretutik eratortzen diren betebeharrei.

- d. 2/2023 Legean jasotzen diren aurreikuspenak ez zaizkie aplikatuko informazio sailkatua duten edo isilpekotzat edo erreserbatutzat aitortu diren kontratazio-prozedurak eta estatuaren segurtasunerako funtsezkoak diren interesak babesteko segurtasun-neurri bereziekin batera egikaritu behar direnak izapidetzean egindako arau-hausteei buruzko informazioak.
- e. 2019/1937 (EB) Direktibaren eranskinaren II. partean (Kapital-zuritzearen eta terrorismoaren finantziazioaren prebentzioa, zerbitzu, produktu eta merkatu finantzarioak, garraio-segurtasuna eta ingurumen-babesa) zehazten diren arau-hausteetakoren baten informazioa ematen bada edo publikoki ezagutarazten bada, alor horietako arau-hausteen komunikazioari buruzko araudi espezifikoa aplikatu beharko da.

4.2.- Irismen pertsonala.

Mutualitateko langile eta kolaboratzaile guztiei eta Mutualiako gobernu- eta partaidetza-organoetako kide eta ordezkari guztiei aplikatuko zaie politika hau, eta, kasu guztietan:

- a. Sektore pribatuan edo publikoan lan egiten duten eta Mutualiaren jarduerari lotutako laneko testuinguru bateko edo testuinguru profesional bateko arau-hausteei buruzko informazioa lortu duten informatzaileei.
- b. Langile autonomoei;
- c. Enpresa bateko administrazio-, zuzendaritza- eta ikuskapen-organoetako kideei, partaideei eta akziodunei, kide ez-exekutiboak ere barne direla;
- d. Kontratista, azpikontratista eta hornitzaileentzat edo haien ikuskaritzaren pean lan egiten duen edozein pertsonari.
- e. Dagoeneko bukatutako lan- edo estatutu-harreman baten testuinguruan Mutualiaren jarduerekin lotura duten arau-hausteei buruzko informazioa publikoki jakinarazten duten informatzaileei, boluntarioei, bekadunei, prestakuntzako aldiak dauden langileei (ordainsaria jasotzen dutenak eta ez dutenak) eta lan-harremana oraindik hasi ez dutenei, baldin eta arau-hausteei buruzko informazioa kontratuaren aurreko hautaketa- edo negoziazio-prozesuan lortu bada.
- f. Langileen legezko ordezkariak, informatzaileari aholku eta laguntza emateko funtzioak betetzen dituztenean; zerbitzuak eskaintzen dituen erakundearen esparruan informatzaileari laguntza ematen dioten pertsona fisikoei; eta informatzailearekin erlazionatuta dauden eta errepresaliak jasan ditzaketen pertsona fisikoei (adibidez, lankideak eta senideak).
- g. Informatzaileari lana ematen dioten pertsona juridikoei edota laneko testuinguruan edota partaidetza esanguratsua duen beste testuinguru batzuetan informatzailearekin beste edozein motatako harremana duten pertsona juridikoei.

5. Garapena

5.1. Barneko informazio-sistema

Mutualiako barneko informazio-sistema LEHENTASUNEZKO bidea da politika honen aplikazio-eremu materialean aurreikusten diren egite edo ez-egiteen berri emateko.

Mutualiako barneko informazio-sistemari dagokionez:

- a. Politika honetako pertsonen esparruan sartzen diren pertsonen aukera emango die politika honen irismen materialeko eremuan aurreikusten diren arau-hausteei buruzko informazioaren berri emateko.
- b. Modu seguruan diseinatu, ezarri eta kudeatu beharko da, informatzaileen eta komunikazioan aipatzen den edozein hirugarrenen identitatearen konfidentzialtasuna bermatzeko; komunikazioaren kudeaketan eta izapideak egitean egiten diren jarduketak eta datuen babesa ere bermatu beharko ditu, eta baimenik ez duten langileen irispidea eragotzi beharko du.
- c. Idatzizko eta ahozko komunikazioak onartu beharko ditu.
- d. Salaketa anonimoak egiteko aukera eman beharko du.
- e. Erakundean ezar daitezkeen barneko informazio-kanalak barne hartuko ditu.
- f. Aurkeztutako komunikazioak erakunde barruan modu eraginkorrean trata daitezkeen bermatu beharko du, erakundea izan dadin irregulartasun posiblearen berri duen lehena.
- g. Independentea izan beharko du, eta beste erakunde batzuetako barneko informazio-sistemekiko bereizita agertu beharko du.
- h. Sistemaren arduradun bat eduki beharko du, Legean eta politika honetan zehazten denari jarraituz.
- i. Politika honen babesa izango du, zeina langileen legezko ordezkariekin kontsultatuko beharko baita; halaber, erakundean haren berri eman beharko da modu egokian.
- j. Jasotako informazioak kudeatzeko prozedura bat eduki behar du.
- k. Informatzaileak Mutualiaren esparruan babesteko bermeak ezarri beharko ditu, eta 2/2023 Legean jasotzen diren gutxieneko edukiak eta printzipioak errespetatu beharko ditu kasu guztietan.

- l. Espedientearen izapideak egiten diren artean, komunikazioak eragiten dien pertsonen eskubidea izango dute errugabetasun-presuntziorako, defentsa-eskubiderako eta espedientera sarbidea izateko, legean arautzen diren baldintzetan. Bestalde, informatzaileentzat ezartzen den babeserako eskubidea ere izango dute: ez da jakinaraziko haien identitatea, eta gertaeren eta prozedurako datuen konfidentzialtasuna bermatuko da.
- m. Mutualiako barneko informazio-sistema erakundean bertan kudeatu ahalko da, edo kanpoko hirugarren baten bidez, 2/2023 Legean aurreikusten diren baldintzetan. Ondorio horietarako, informazioak jasotzea jotzen da sistemaren kudeaketatzat.
- n. Sistema kanpoko hirugarren batek kudeatuko duela hautatzen bada, une oro eskatuko zaio berme egokiakeskainditzaladatuenindependentziari, konfidentzialtasunari eta babesari eta komunikazioen sekretuari dagokionez. Bestalde, lege honetan ezartzen diren berme eta betekizunak ez dira galdu beharko, eta ez du ekarriko erantzukizuna Sistemaren arduradunaz bestelako pertsonen gain geratzea.

5.2. Barneko informazio-kanala

Mutualiak, barneko informazio-sistemaren barruan, BARNEKO INFORMAZIO-KANAL bat izango du, politika honetako esparru materialari dagokion informazioa aurkeztu ahal izateko.

Mutualiako barneko informazio-kanalak aukera eman beharko du komunikazio anonimoak aurkezteko eta haiei dagozkien izapideak egiteko.

Barneko kanala erabiltzeko moduari buruzko informazio egoki, argi eta irispide errazekoa eduki beharko du barne-kanalak, eta mutuaren webgunearen hasierako orrian agertu beharko du, atal bereizi batean eta erraz identifikatzeko moduan.

Mutualiako barruko kanalak gaituta egon beharko du, halaber, 2/2023 Legearen 2. artikuluan ezartzen den esparru materialetik kanpoko informazioak jasotzeko (politika honen 4.1.1 atalean azaltzen direnak). Hala ere, komunikazio horiek (politika honen 4.1.2 eta 4.1.3 ataletakoak) eta haien igorleak lege horretan aurreikusten den babes-eremutik kanpo geratuko dira; Mutualian ezarritako arauetan aurreikusten diren babes-neurriak aplikatuko dira, betiere politika honen 5.9 atalean zehaztutakoaren arabera.

5.3. Barneko informazio-sistemaren arduraduna

Mutualiako barneko informazio-sistemaren arduraduna BATZORDE BETEARAZLEA da, Erakundeko zuzendaritzak-gerentziak proposatutako pertsonen osatuko dutena.

Batzordea gutxienez HIRU (3) pertsonak osatuko dute eta gehienez ZAZPI (7) pertsonak; kopuruak bakoitia izan beharko du beti.

Zuzendari kudeatzaileak BATZORDE BETEARAZLEKO kideak izendatzeko eta kargutik kentzeko, aldezturik Erakundeko Zuzendaritza Batzordeari jakinarazi eta behar bezala arrazoitu beharko dio, eta hark berretsi egin beharko ditu, izendapena edo kargutik kentzea eraginkorra izan dadin.

BATZORDE BETEARAZLEAK bere funtzioak modu independente eta autonomoan gauzatu beharko ditu erakundeko gainerako organoei dagokienez, ezingo du inolako argibiderik jaso bere jardunean, eta bere funtzioak betetzeko beharrezko baliabide pertsonal eta material guztiak eduki beharko ditu.

BATZORDE BETEARAZLEAREN erantzukizuna izango da informazioak kudeatzeko prozedura bizkor izapidetzea.

BATZORDE BETEARAZLEAK organo horretako kideren bati eskuordetu beharko dizkio barneko informazio-sistema kudeatzeko eta ikerketa-espedienteak izapidetzeko ahalmenak. Eskuordetzen den pertsona horrek Batzordea zuzentzeko eta koordinatzeko funtzio gorenak izango ditu, eta Mutuialiko ZUZENDARI BETEARAZLE gisa izendatuko da. Batzordea osatzen duten gainerako kideen babesa jasoko du Barneko Informazio Sistemaren arduradun gisa dituen funtzio eta eskumenak gauzatzeko, eta interes-gatazkak saihesten saiatuko da kasu guztietan.

BATZORDE BETEARAZLEAK antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko BARNEKO ARAUDI/ESTATUTU propioa onetsiko du, zeinean definituko baitira rolak, erantzukizunak eta funtzioak. Horrez gainera, jasotako informazioak kudeatzeko prozedura garatzen duten INSTRUKZIO eta FORMATU/EREDU dokumentalak ere onetsi ahal izango ditu.

Indibidualki izendatutako pertsona fisikoaren eta organo kolegiatuko kideen izendapenaren eta kargugabetzearen berri eman beharko zaio Informatzailearen Babeserako Agintaritza Independenteari (AAI) edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoetako organo eskudunei, dagozkien eskumenen eremuan, hurrengo hamar egun baliodunen barruan; kargugabetzearen kasuan, hura justifikatu duten arrazoiak zehaztu beharko dira.

5.4. Informazioak kudeatzeko oinarritzko prozedura

BATZORDE BETEARAZLEAK bestelako prozedura, instrukzio eta formatu/eredu dokumentalen bidez gauzatu ahalko du oinarritzko prozedura hori, beharrezkoa bada sistema modu egokian kudeatzeko.

5.4.1 Informazioak jasotzea:

1. Barneko informazio-kanala identifikatuko da, eta irispide errazekoa izan beharko du. Informazioa agintari eskudunen eta, hala badagokio, Europar Batasuneko erakunde, organo eta organismoen aurrean aurkezteko kanpoko informazio-kanalei buruzko informazio argi eta irisgarria ere jaso beharko du.
2. Informazioa modu anonimoan eman daiteke.

Informazioa ez bada modu anonimoan aurkezten, informatzailearen identitatea ondoren zehazten diren baldintza hauetan gordeko da, eta neurri hauek hartu beharko dira:

- Komunikazio bat aurkezten edo ezagutarazte publiko bat egiten duen pertsonak eskubidea du beraren identitatea inork hirugarrenei ez jakinarazteko.
 - Barneko informazio-sistemek ez dute eskuratuko informatzailea identifikatzea ahalbidetzen duen daturik, eta neurri tekniko eta antolakuntzazko egokiak izan beharko dituzte kaltetuei eta emandako informazioan aipatzen den beste edozein hirugarreni dagozkien datuen identitatea gordetzeko eta konfidentzialtasuna bermatzeko, informatzailearen identitatea bereziki, identifikatu bada.
 - Informatzailearen identitatea agintaritza judizialari, Ministerio Fiskalari edo administrazio-agintaritza eskudunari baino ezingo zaio jakinarazi, ikerketa penal, diziplinazko edo zehatzaile baten esparruan. Atal horri jarraituz jakinarazitako datuak dagokion araudiak babestuko ditu. Bereziki, informatzaileari jakinaraziko zaio haren identitatea jakinarazi aurretik, baldin eta informazio horrek ez badu ikerketa edo prozedura judiziala arriskuan jartzen.
3. Informazioa IDATZIZ eman ahalko da POSTA bidez eta berariaz gaitutako edozein baliabide ELEKTRONIKOren bidez, Mutualiako barneko informazio-kanalera zuzenduta, eta HITZEZ, bai telefonoz, bai ahots-mezularitzako sistemaren baten bidez.

Informatzaileak eskatzen badu, BILERA PRESENTZIAL batean ere aurkeztu ahalko da, gehienez ere zazpi eguneko epean.

HITZEZKO komunikazioaren kasuan, informatzaileari ohartaraziko zaio komunikazioa grabatu egingo dela, eta jakinaraziko zaio beraren datuak Datuak Babesteko (UE) 2016/679 Erregelamendu Orokorrean (DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan (DBEDBLO) zehazten denaren arabera tratatuko direla.

HITZEZKO komunikazioak (bilera presentzialetan, telefonoz eta ahots-mezularitzako sistemen bidez egiten direnak barne hartuta) modu hauetakoren baten bidez DOKUMENTATU beharko dira, informatzailearen baimena lortu ondoren:

- a) elkarrizketa formatu seguru, iraunkor eta irisgarrian GRABATUTA, edo
- b) elkarrizketa osoa zehazki TRANSKIBATUTA; elkarrizketa tratatzearen ardura duten langileek egin beharko dute transkripzioa. Datuen babesari buruzko araudiaren arabera dagozkion eskubideen kalterik gabe, mezuaren transkripzioa egiaztatzeke, zuzentzeko eta bere sinaduraren bidez onesteko aukera emango zaio informatzaileari.

Informazioa aurkezten duenean, informatzaileak jakinarazpenak jasotzeko posta-helbide, helbide elektroniko edo toki seguru bat adierazi ahalko du; halaber, informazioaren ondorioz egiten diren jarduketei buruzko komunikazioak jasotzeko uko egin ahalko dio berariaz.

- 4. Informazioa aurkeztu ondoren, informazioa kudeatzeko sisteman ERREGISTRATUKO da, eta identifikazio-kode bat esleituko zaio.

Informazioa kudeatzeko sistema Mutualiako barneko informazio-sistema kudeatzen duten langileek bakarrik erabil dezaketen eta behar bezala baimenduta dagoen datu-base seguru batean jasoko da. Datu-base horretan erregistratuko dira jasotzen diren komunikazio guztiak, eta datu hauek beteko dira:

- a) Jasotze-data.
 - b) Identifikazio-kodea.
 - c) Egindako jarduerak.
 - d) Hartu beharreko neurriak.
 - e) Amaiera-data.
- 5. Informazioa jaso eta gehienez ere ZAZPI (7) egun balioduneko epean, JASO IZANAREN AGIRIA egingo da, informatzaileak ez badio berariaz uko egin ikerketari buruzko komunikazioak jasotzeko edo ez bazaio irizten informazioa jaso izanaren agiriak arriskuan jar dezakeela komunikazioaren konfidentzialtasuna.

5.4.2 Onarpen-izapideak.

Informazioa erregistratu ondoren, barne-kanalaren barruan aplikatu beharreko ESPARRU MATERIALEKO gertaera edo jokabideak azaltzen dituen egiaztatu beharko da.

Izapideak onartzeko fasean, informatzailearekin komunikatzeko aukera izango da, eta, beharrezkotzat jotzen bada, informazio gehiago eskatu ahalko zaio, salbu eta informatzaileak horri uko egin ez badio edota komunikazioa ez bada anonimoa.

Aurretiazko azterketa egin ondoren, erabaki hauek hartuko dira informazioa erregistroan sartu eta gehienez ere HAMAR (10) egun balioduneko epean:

- a) Komunikazioa ez onartzea, hauetako kasuren batean:
1. Jasotako komunikazioa argi eta garbi sartzen ez denean Barne Kanalaren eremu materialean edo pertsonalean.
 2. Adierazten diren gertaerek ez dutenean inolako sinesgarritasunik.
 3. Adierazten diren gertaerak ez direnean ordenamendu juridiko eta barne-kanaleko aplikazio-eremu materialean jasotzen diren barne-arauetako arau-haustek.
 4. Komunikazioak nabarmenki ez duenean oinarririk edo delitu baten bidez lortu izanaren arrazoizko zantzuak daudenean. Azken kasu horretan, komunikazioa ez onartzeaz gainera, delitu direla jotzen den gertaeren zerrenda eta haien azalpena bidaliko zaizkio Ministerio Fiskalari.
 5. Komunikazioak ez duenean arau-hausteei buruzko informazio berri eta esanguratsurik aldezturik egindako eta dagoeneko dagozkion prozedurak sorrarazi dituen komunikazio baten aldean, ez badago beste segimendu bat justifikatzen duen egitezko zein zuzenbideko egoera berririk.

Kasu horietan, ebazpena modu arrazoituan jakinaraziko da. Komunikazioa ez dela onartu jakinaraziko zaio informatzaileari hurrengo BOST (5) egun baliodunetan, komunikazioa ez bada anonimoa edo informatzaileak ez badio uko egin komunikazioak jasotzeari.

- b) Komunikazioa izapidetzeko onartzea.

Komunikazioa izapideak egiteko onartua izan dela jakinaraziko zaio informatzaileari hurrengo BOST (5) egun baliodunetan, komunikazioa ez bada anonimoa edo informatzaileak ez badio uko egin komunikazioak jasotzeari.

- c) Informazioa berehala bidaltzea Ministerio Fiskalari gertaerak delitua izateko zantzu egon daitekeenean, edo informazioa Europako Fiskaltzara bidaltzea, gertaerek Europar Batasunaren interes finantzarioei eragiten badiete.
- d) Komunikazioa bidaltzea hura izapidetzeko egokitzat jotzen den agintaritzak, erakunde edo organismo eskudunari.
- e) Premiazko neurri kautelazko/zuzentzaileak proposatzea arau-haustearen jarraitutasuna, frogak ezkutatzea, suntsitzea eta aldatzea saihesteko, arau-haustek ez daitezela preskribatu eta bestelako kalterik ez gertatzeko.

5.4.3 Instrukzioa

1. Adierazitako gertaeren sinesgarritasuna egiaztatzeko jarduketa guztiak barne hartuko ditu instrukzioak. Eragindako pertsonen errugabetasun-presuntzioa eta ohorea errespetatu beharko dira beti.

Instrukzioa izapidetzeko fasean, informatzailearekin komunikatzeko aukera izango da, eta, beharrezkotzat jotzen bada, informazio gehiago eskatu ahalko zaio, informatzaileak ez badio uko egin horri edota komunikazioa ez bada anonimoa.

2. Bermatu beharko da informazioak eragiten dion pertsonak haren berri izango duela, eta azaldutako gertaerak zein diren ere adierazi beharko zaio labur. Egozten zaizkion egite edo ez-egiteen berri jasotzeko eta edozein unetan entzuna izateko eskubidea edukiko du. Horrez gainera, alegazioak idatziz aurkezteko eta bere datu pertsonalen tratamendurako duen eskubideari buruzko informazioa eman beharko zaio. Hala ere, informazio hori entzunaldi-izapidean eman ahalko da pentsatzen bada informazio hori aldez aurretik emateak frogak ezkutatzeari, suntsitzea eta aldatzea eragin dezakeela, edo egokitze bat jotzen bada ikerketa aurrera eramateko.

Eragindako pertsonari inola ere ez zaie jakinaraziko informatzailearen identitatea, eta ez zaie komunikaziorako sarbiderik emango. Ikerketan zehar, komunikazioaren berri emango zaio ikertuari, labur. Informazio hori entzunaldi-izapidean eman ahalko da informazio hori pentsatzen bada aldez aurretik emateak frogak ezkutatzeari, suntsitzea eta aldatzea eragin dezakeela, edo egokitze bat jotzen bada ikerketa aurrera eramateko.

3. Alegazioak idatziz egiteko eskubidearen kalterik gabe, instrukzioan, ahal dela, beti barne hartu beharko da eragindako pertsonarekin elkarriketa bat: erabat errespetatu beharko da beti errugabetasun-presuntzioa, eta gertaeren bere bertsioa azaltzeko eta egokitze bat jotzen dituen frogak aurkezteko gonbita egingo zaio.

Eragindako pertsonaren defentsarako eskubidea bermatzeko, espedienterako irispidea izango du (ez zaio erakutsiko informatzailea identifikatzeko aukera eman dezakeen informaziorik), edozein unetan entzun ahal izango zaio esateko duena, eta abokatu baten aurrean agertzeko aukera duela adierazi beharko zaio.

4. Ikerketa-jarduerak egiten dituzten pertsonak jarduera horretan ezagutzen dituzten informazioei buruzko sekretua gorde beharko dute.

5.4. Jarduketan amaiera.

1. Jarduketa guztiak amaitu ondoren, TXOSTEN bat egingo da, gutxienez alderdi hauek jaso beharko dituenak:
 - a) Adierazitako gertaeren azalpen bat, komunikazioaren identifikazio-kodea eta erregistro-data.
 - b) Komunikazioaren sailkapena, haren izapideei lehentasuna eman behar zaien ala ez jakiteko.
 - c) Gertaeren sinesgarritasuna egiaztatzeke egin diren jarduketak.
 - d) Instrukzioan atera diren ondorioak eta haien oinarrian dauden eginbide eta zantzuen balorazioa.
 - e) Hurrengo paragrafoarekin bat etorritik hartutako erabakiak.

2. Txostena igorri ondoren, hauetako erabakiren bat hartuko da:
 - a) Espedientea artxibatzea; informatzaileari horren berri eman beharko zaio, eta, hala badagokio, eragindako pertsonari ere bai. Halakoetan, informatzaileak babeserako eskubidea izango du 2/2023 Legean zehazten diren kasuetan, instrukzio-fasean egindako jarduketaren ondorioz ez bada ondorioztatu jasotako informazioa ez zatekeela onartu behar.
 - b) Ministerio Fiskalari bidaltzea baldin eta, hasiera batean gertaerak delitua izatearen zantzurik ikusi ez arren, hala ondorioztatzen bada instrukzioan. Delituak Europar Batasunaren interes finantzarioei eragiten badie, Europako Fiskaltzara bidaltzea.
 - c) Dagozkion barne-neurriak proposatzea; adibidez, izaera tasaturik gabe:
 - Neurri kautelazko/zuzentzaileak proposatzea arau-haustearen jarraitutasuna, frogak ezkutatzeko, suntsitzea eta aldatzea saihesteko, arau-hausteak ez daitezen preskribatu eta bestelako kalterik ez gertatzeko.
 - Diziplinazko jarduketak edo eragindako pertsona zerbitzutik, sailetik edo funtzioetatik kentzeko jarduketak hasteko proposatzea.
 - Beste batzuk
 - d) Egindako guztia agintaritzaren publiko eskudunari helaraztea, legearen dagokionean izapidetu dezan.
 - e) Batzorde Betearazlearen azken txostena Mutualiako Zuzendaritzari helaraztea, hala badagokio, baliabideak onartzeko proposamenarekin.

Erabakia edozein dela ere, informatzaileari jakinaraziko zaio, betiere ez badio horri uko egin edo komunikazioa ez bada anonimoa.

3. Jarduketak amaitzeko eta, hala badagokio, informatzaileari erantzuteko epea ezingo da izan HIRU (3) HILABETE baino gehiagokoa informazioa erregistroan sartu zen egunetik zenbatzen hasita, edo, informatzaileari ez bazitzaion bidali jaso izanaren adierazpenik, HIRU (3) HILABETE baino gehiagokoa komunikazioa egin eta ZAZPI (7) eguneko epea amaitzen denetik hasita, epea LUZATZEA eskatzen duten konplexutasun bereziko kasuetan izan ezik; kasu horretan, epea BESTE HIRU (3) HILABETEZ luzatu ahalko da.

5.4.5 Informatzailearen eskubide eta bermeak.

Informatzaileak berme hauek izango ditu:

1. Komunikazioa modu anonimoan edo ez-anonimoan egin nahi duen erabakitzea. Bigarren kasu horretan, informatzailearen identitatea gordeko dela bermatu beharko da, hirugarren pertsona ez jakinarazteko.
2. Komunikazioa hitzez edo idatziz egitea.
3. Ikerketa dela-eta egiten diren komunikazioak jasotzeko posta-helbide, helbide elektroniko edo toki seguru bat adieraztea.
4. Komunikazioak jasotzeko uko egitea, hala badagokio.
5. Sistemaren arduradunaren edo haren ordezkariaren aurrean agertzea, bere erabakiz edo hark eskatzen dionean. Hala badagokio eta egokitzen jotzen badu, abokatu batek edo aholku emateko eta/edo bere interesak defendatzeko esleitutako pertsona batek lagundu ahal izango dio.
6. Pertsona horren aurrean agertu behar duenean, bideokonferentziaz edo informatzailearen identitatea eta komunikazioaren segurtasuna eta fidagarritasuna bermatuko dituen bestelako bitarteko telematikoko segururen baten bidez egiteko eskatzea.
7. Datu pertsonalen babesari buruzko legediak ematen dizkion eskubideak baliatzea.
8. Bere salaketaren izapideen egoeraren eta ikerketaren emaitzen berri izatea.

5.5 Beste pertsona edo sail batzuek komunikazioa barneko informazio-sistemaren arduradunari helaraztea.

Politika honen arabera barne-kanalaren aplikazio-eremu materialari dagozkion gertaerei buruzko informazio/komunikazio bat jasotzen duen edozein pertsona edo sailek informazio-sistemaren arduradunari bidali beharko dio, aldaketarik egin gabe eta berak jasotzen duenetik HAMAR (10) eguneko epean. Informatzaileari epe horren barruan adierazi beharko zaio informazioa bidalia izan dela.

Informazioa beste kanal batetik edo informazioaren kudeatzen arduradunak ez diren pertsonengandik jasotzen denean, hura jaso duen pertsonak ezingo du inola ere (urratzeak diziplinazko zigorra ekar dezake) ezagutarazi informatzailea edo eragindako pertsona identifikatzeko aukera eman dezakeen informaziorik, eta komunikazioa berehala bidali beharko dio informazio-sistemaren arduradunari, aldaketarik egin gabe.

5.6 Datu pertsonalen tratamenduaren araubide juridikoa.

Barne-kanala aplikatzen eta oro har 2/2023 Legean ezarritakoa aplikatzen eratoritzen diren datu pertsonalen tratamendua arau hauetan ezarritakoaren bidez zuzenduko da: Datuak Babesteko (UE) 2016/679 Erregelamendu Orokorra (DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa (DBEDBLO), maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoa, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa, eta 2/2023 Legearen VI. titulua.

5.7 Informazioen erregistroa.

Jasotako informazioen eta haiek eragindako barne-ikerketen erregistro-liburu bat izango du Mutualiako barneko informazio-sistemak, zeinak legean aurreikusten diren konfidentziasun-eskakizunak bete beharko baititu.

Erregistro hori ez da publikoa izango, eta agintaritza eskudunaren eskaera arrazoitua jasota, auto bidez, prozedura judicial baten esparruan eta haren zaintzapean baino ezingo da izan erabateko irispidea edo partziala eduki horren erregistrora.

Jasotako informazioei eta barne-ikerketei buruzko datu pertsonalak legea betetzeko beharrezko den denbora egokian bakarrik gordeko dira. Zehazki, datuen babesari dagokionez aplikatu beharreko legedian aurreikusitakoa hartuko da kontuan. Datuak inola ere ezingo dira gorde hamar urte baino gehiagoan.

5.8.- Errepresalien debekua

Berariaz debekatzen dira politika honetan zehazten denari jarraituz komunikazio bat aurkezten duten pertsonen aurkako errepresaliatzat har daitezkeen egintzak, barne direla errepresalia-mehatxuak eta errepresalia-saialdiak.

Errepresaliatzat jotzen da legeak debekatzen duen edozein egite edo ez-egite edo, zuzenean edo zeharka, haiek jasaten dituzten pertsonen laneko testuinguru edo testuinguru profesionalean kontrako tratua eragiten dietenak informatzaile izate hutsagatik edo ezagutarazte publiko bat egiteagatik. Errepresaliatzat jotzen dira ekintza hauek:

- a) Lan-kontratua etetea, lanetik botatzea edo lan- nahiz estatutu-harremana bukatzea, barne hartuta probaldia amaitu ondoren aldi baterako lan-kontratua ez berritzea edo behar baino lehenago amaitzea eta ondasun- eta zerbitzuen kontratuak behar baino lehenago amaitzea eta baliogabetzea; edozein diziplinazko neurri ezartzea, mailaz jaistea eta lanpostu-igoerak ukatzea eta lan-baldintzen beste edozein aldaketa esanguratsu eta aldi baterako lan-kontratu bat kontratu mugagabe ez bilakatzea, langileak horretarako legeko espektatibak dituenean, non eta neurri horiek zuzendaritza-ahalmenaren gauzatze arruntean ez diren hartzen laneko araudiaren edo dagokion enplegatu publikoaren estatutua arautzen duen legediaren babesean, komunikazioa aurkeztearekin zerikusirik ez duten egoera, gertaera edo arau-hauste ziurtatuen ondorioz.
- b) Kalte (izen onari eragiten diotenak barne hartuta) eta galera ekonomikoak, bortxa, larderia, jazarpena eta ostrazismoa.

- c) Laneko jarduera edo jarduera profesionala negatiboki ebaluatzea edo erreferentzia negatiboak egitea.
- d) Sektore-esparrujakin batean, zerrenda beltzetan sartzea eta enplegua lortzea eta obra eta zerbitzuak kontratatzea oztopatu edo eragotzi dezakeen informazioa zabaltzea.
- e) Lizentzia edo baimenak ukatzea edo baliogabetzea.
- f) Prestakuntza ukatzea.
- g) Diskriminazioa eta kontrako tratua edo bidegabea.

5.9. Informatzailea babesteko eta hari laguntzeko neurriak.

2/2023 Legean aurreikusten diren neurriak aplikatuko dira erakunde eta entitate eskudunen bidez eta haien aurrean.

2/2023 Legean informatzailea babesteko aurreikusten diren neurriak lege horren aplikazio-eremu materialeko egite edo ez-egiteei —lege horren 2. artikuluan jasotzen direnak— buruzko informazioei bakarrik dagozkie (politika honetako 4.1.1 atalean aurreikusten direnak).

Beste gai batzuei buruzko informazioak direla-eta (politika honetako 4.1.2 eta 4.1.3 ataletan jasotzen direnak) informatzailea babesteko neurri posibleak Mutualitatean ezarritako aplikazio-arauen bidez zuzenduko dira; neurri horien artean beti izango da errepresalien debekua.

5.10 Informatzailearen Babeserako Agintaritza Independentearen (AAI) kanpoko kanala edo autonomia-erkidegoetako agintaritza eta organo eskudunak.

Pertsona fisiko orok eman ahal izango du 2/2023 Legearen aplikazio-eremuan sartzen diren egite edo ez-egiteen berri Informatzailearen Babeserako Agintaritza Independentearen aurrean (AAI) edo autonomia-erkidegoetako agintaritza edo erakunde eskudunen aurrean (bai zuzenean, bai aldez aurretik jakinarazita barneko kanal egokiaren bidez).

5. 11. Barneko informazio-kanalari buruzko informazioa eta prestakuntza.

Mutualiako barneko kanala erabiltzeko moduari eta kudeaketa-prozeduraren oinarrizko printzipioei buruzko informazio egoki, argi eta irispide errazekoa eman beharko da. Informazio horrek mutualitatearen webgunearen hasierako orrian agertu beharko du, atal bereizi batean eta erraz identifikatzeko moduan.

Politika honi eta beroni lotutako legezko arauak eta barne-arauak buruzko prestakuntza-ekintzak egingo dira.

6. Zabaltea eta zalantza argitzea.

Mutualiako langile guztiei jakinaraziko eta hedatuko zaie politika hau.

Politikaren interpretazioari eta aplikazioari buruz sortzen diren zalantza Mutualiako BATZORDE BETEARAZLEARI kontsultatu beharko zaizkio.

7. Mutualiako beste politika batzuekiko koordinazioa

Mutualiako gainerako politikek politika honekin koordinatuta egon beharko dute.

8. Kontrola

Politika honen betetze-maila kontrolatzea Mutualiako BATZORDE BETEARAZLEARI dagokio, eta politika hau eta beronen helburuak modu proaktiboan betetzeko erantzukizuna du; horretarako, eskumen zabalak, aurrekontu-autonomia eta jarduteko independentzia ditu.

Hirugarren defentsa-linea gisa, BARNE-AUDITORETZARI dagokio haren kontrola.

9. Onespen- eta berrikuste-taula

Data	Bertsioa	Onespena
2023/05/26	0	Zuzendaritza Batzordeak onetsia
2024/03/25	1	1 berrik. – Zuzendaritza Batzordeak onetsia Mutualiaren barne-arau eta -protokoloen balizko ez-betetzei buruzko informazioaren barne-sistemaren eskumen-eremu materialeko kasuak doitzeko.



mutualia
